

FUNDACIÓN GAITUZSPORT FUNDAZIOA:





KIPREST: Jarduera fisiko inklusiboa bultzatzen duen app bat



Xabier Leizea Ortega
gestion@gaituzsport.eus

622 022 063

<https://www.gaituzsport.eus/>

-
-  **Jarduera:** GaituzSport 2015ean sortu zen, Kirol Egokituaren Euskal Federazioak sustatutako Gizarte Berrikuntzako proiektu gisa. 2019an, desgaitasuna eta/edo osasun-asaldurak dituzten pertsonen kirol-jarduera fisikoa normaltasunez egiten laguntzea helburu duen fundazio bihurtu da
 -  **Sektorea:** Hirugarren sektorea-Gizarte-zerbitzuak
 -  **Enplegatutako pertsonen kopurua:** 21
 -  **Lokalizazioa:** Concepción S/N Edificio Ikastola Harrobia FP/LH, 48003 , Bilbao - Bilbo, Bizkaia

EUSKADI mailako berrikuntza INKREMENTALA**Zergaitik izango litzateke berrikuntza kasu praktiko bat?**

Izan ere, aplikazio mugikorra da, eta aukera ematen die desgaitasuna eta/edo osasun-asaldurak dituzten pertsoneri laguntza-baliabideak izateko, kirol-testuinguru normalizatueta jarduera fisikoa modu normalizatuan (inklusiboan) egiteko. Kiprest berrikuntza sozialeko produktu bat da, eta estrategia multzo bati esker, egiturazko arazoak ezabatzen ditu, parte hartzeko oztopoak hautsiz. Zerbitzu pertsonalizatua ematen du, merkatuan ez dagoena, ikuspegi integral batetik, eta erabiltzaileari bere kirol-jarduera fisikoaren jarraipen jarraitua eta arina eskaintzen dio.

KASU PRAKTIKOARI BURUZKO INFORMAZIO ZEHATZA

- Kiprest Bizkaiko 5 udalerritan egotea.
- Desgaitasun desberdinak dituzten 315 pertsona ari dira aplikazioa erabiltzen.
- Erabiltzaileen batez besteko hazkundea, 8 pertsona astean.
- GaituzSporten arreta-gaitasuna handitzea, ez baita derrigorrezkoa fisikoki bertan egotea, eta kalitate bereko talde askoz handiago bati arreta eman ahal izango zaio.
- Egokitzeko erraztasun handiagoa eta azkartasun handiagoa GaituzSporteko ekipoaren zerbitzua erabiltzaileari ematean.
- Kostu eskuragarriagoa zerbitzua kontratatzen duten erakundeentzat, eta horrek zerbitzuaren iraunkortasunean eragiten du denboran zehar, erabiltzaileei mesede eginez.
- 90 desgaitasun-mota baino gehiagorako eta osasun-alterazio desberdinetarako informazio espezifiko.
- Erraztasun handiagoa informazioa biltzeko, nonahikotasuna, desgaitasuna eta/edo osasun-alterazioak dituzten erabiltzaileen integrazioa.
- Kiprest arkitekturak programari atxiki nahi zaizkion zentro eta udalerrri guztiei eranstea ahalbidetzen du, eta bere funtzionamenduak udal-eremua, osasun-eremua edo elkarte-eremua jasotzen ditu.
- 2022ko Euskalit Berrikuntza Sarirako finalista.

Aurrekariak

GaituzSport 2015etik ari da agente bideratzaile gisa, desgaitasuna eta/edo osasun-asaldurak dituzten pertsonen kirol-jarduera fisikoa normaltasunez egiteko aukera izan dezaten. GaituzSportek eskaintzen zuen zerbitzua modu presentzialean bakarrik egiten zela kontuan hartuta, eta gero eta gizarte digitalizatuago batean bizi garela jakinda, GaituzSport teknologia berriak bere zerbitzuak hobetzeko eta zabaltzeko aliatu nola bihurtu pentsatzen hasi zen.

Erronka

GaituzSporten erronka nagusia plataforma digital batek behar diren laguntza-baliabide guztiak modu ez-presentzialean ematea izan da, ezgaitasunen bat edo osasun-alterazioren bat duten pertsonen ahalduntze-prozesua udal-inguruneetan geldiarazi gabe, eta, gainera, kirol-mailan oso kolektibo aktiboa ez direla jakinda.

Ekintzak

1. 2019ko amaiera - Bideragarritasunari eta merkatu-prospekzioari buruzko azterlana. Ideia-jasa saio batzuk egiten dira, eta gaur egun desgaitasunari eta jarduera fisikoari lotuta dauden aplikazioak aztertzen dira.
2. Aplikazioaren ezaugarriak eta hura diseinatzeko funtsezko puntuak definitzea.
3. Aldi berean, desgaitasunari, osasunari eta kirolari buruzko barne-mailako ebidentzia zientifikoen azterketa egiten da.
4. 2020an: aplikazioaren garapena hasiko da.
5. 2021ean: beta moduan aplikazioa martxan jarri da eta proba pilotu bat egin da, GaituzSporteko jarduera fisikoko eta osasuneko programen 200 erabiltzaile ingururen parte-hartzearekin, GaituzSporteko Arlo Teknikoko profesionalekin eta instalazioetako kirol monitoreekin, tresna probatzen dutenak, ahalik eta optimizazio eta eraginkortasun handiena lortu arte.
6. Pilotuaren emaitzekin, aplikazioan hobekuntzak egiten dira.
7. Arkitektura digital berria, segurua eta errendimendu handikoa garatzea, punta-puntako enpresa baten bidez.
8. Aplikazioa ezagutarazteko, komunikazio-kanpaina bat, azalpen-bideoa, hainbat kongresu eta komunikabidetan aurkeztea abian jartzea.
9. Eragin soziala etengabe neurtzea eta erakundearen jarduerari egotz dakizkiekeen epe luzeagoko eta irismen handiagoko ondorioak neurtzea.

Lortutako emaitzak

- Presencia de Kiprest en 5 municipios de Bizkaia.
- Un total de 315 personas con diferentes discapacidades están usando la aplicación.
- Media de crecimiento de personas usuarias, 8 personas a la semana.
- Ampliación de la capacidad de atención de GaituzSport debido a la no obligatoriedad de presencia física, pudiendo atender a un colectivo mucho mayor con la misma calidad.
- Mayor facilidad de adaptación y mayor inmediatez en la prestación del servicio del equipo de GaituzSport a la persona usuaria.
- Coste más asequible para las entidades que contratan el servicio, lo que repercute en la sostenibilidad del servicio en el tiempo,

beneficiando a los usuarios.

- Información específica para más de 90 tipos de discapacidad y alteraciones de la salud diferentes.
- Mayor facilidad para recabar información, ubicuidad, integración de usuarios con discapacidad y/o alteraciones de salud.
- La arquitectura de Kiprest permite añadir a todos los centros y municipios que se quieran adscribir a su programa y su funcionamiento recoge tanto el ámbito municipal como el de salud o el asociativo.
- Finalista Premio Euskalit Innovación 2022.

KASUAREN KATEGORIZAZIOA

Berrikuntza-eremuak:

- Produktua: Software-a, Zerbitzuak.

Aukera arloak:

- 1 - Osasun-trantsizioa/osasuna
- 2 - Gizarte eraldaketa eta konpromisoa

Ane (bizi prest minbizi jardueran parte hartzen duen emakumea)

"Kiprest programarekin klik bakar batean klikatu ditut Elenak pasa dituen txosten eta dokumentazio guztiak. Gainera, edozein zalantza izanez gero, beti ikus nitzakeen interesatzen zitzaizkidan beste jarduera batzuen bideo eta gomendio guztiak."

Elena (GaituzSporteko kirol-teknikaria, osasun-programen koordinatzailea)

"App-ak aukera eman digu lan egiten dugun pertsona guztiekin hobeto komunikatzeko. Oso eroso da dokumentazio guztia (orientabideak, ebaluazioak) Kiprest bidez bidaltzea eta jakitea tresnak berak ere laguntzen diela bititza aktiboarekin jarraitzeko."

Innovation Index Score: ★★★★★

Lerrokatze estrategikoa: ★★★★★

Kreatibitatea: ★★☆☆★

Kolaborazioa eta hibridazioa: ★★☆☆★

Sistematizazioa: ★★★★★

Eraginkortasuna emaitzetan: ★★☆☆★

Efizientzia emaitzetan: ★★☆☆★

Erreplikagarritasuna eta transferigarritasuna: ★★☆☆★

★

Eragina: ★★★★★

Aintzatespena: ★★☆☆★